


Donostia-San Sebastián hiriburuak eta Debagoiena eskualdeak izan dute 10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaile gehien, ehunekotan

Berrikuntzari lotutako jardueren gastu gehiena hiriburuetan bildu da

Eustatek egindako datuen arabera, Euskal AEn 2011n 10 langile eta gehiagoko enpresa **berritzaileen** portzentajea % 37,8 izan zen. Ehuneko hau aldatu egiten da, eskualdeka ikusiz gero.

Aurrena, Arabako Gainerakoan bildutakoak (Arabako Mendialdea, Gorbeia Inguruak, Arabako Ibarak) non 10 langile baino gehiagokoen enpresen erdia pasa (%50,9) berritzaileak izan ziren 2011n, eta Kantauri Arabarra (%49,1). Ondoren Gipuzkoako eskualde guztiek, Tolosak eta Bidasoa-behereak izan ezik, %40ren gaineko portzentajeak dauzkate; Debagoiena nabarmentzen da, berritzaileak %46,4 dira. Zortzigarren Arabako Lautada, %39,7.

1. grafikoa: Berrikuntza egiten duten 10 langile eta gehiagoko establezimenduen ehunekoa eskualdeen arabera. 2011




Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI.

Rankinean ondoen dagoen eskualde bizkaitarra Markina-Ondarroa da (%39,4), gero Plentzia-Mungia (%38,5), Durangaldea (%38,1) eta Gernika-Bermeo (%37,9), Euskal AEko batez bestekoaren gainetik daudenak.

Enpresa berritzaileen portzentajerik txikienak, Bidasoa-behereak (%32,1) Gipuzkoan eta Arratia-Nerbioik (%33,4) Bizkaian; aipagarria da Bilbo Handia (%34,2), izan ere enpresa-kopuru handienarekin berritzaileen proportzio txikienetakoa du, eta hau gertatzen da 2010ean zuen ratioa hobetu duelarik, horretan bakarretakoa izanik.

Hiriburuetan, Donostiaren (%42,8) eta Bilboren (%34,9) artean ia zortzi puntu daude enpresa berritzaileetan. Gasteizen %39,7 dira 10 langile eta gehiagoko enpresa berritzaileak 2011n; ia bi puntu Euskal AEko batez bestekoaren (%37,8) gainetik.

2. grafikoa: Berrikuntza teknologikoaren gastuaren banaketa. 2006-2011. (milioi eurotan)



Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI.

Berrikuntza-jardueretako gastuaz, beti 10 langile eta gehiagoko enpresetan, kantitaterik handienak hiriburuak barne dituzten eskualdeetan egikaritzen dira. Halere, kontzentrazio-maila ezberdina da, batez ere Gipuzkoan. Bai Araban, bai Bizkaian, hiriburua dagoen eskualdean (Lautadan, Bilbo Handian) lurraldeko gastuaren %80 pasa egiten da. Gipuzkoan askoz gutxiago, Donostialdean %42 gastatzen delarik.

Arabak 432,4 milioitik 377,3 Lautadan gastatzen dira eta Bizkaian 1.053,3 milioitik 846,2 Bilbo Handian. Gipuzkoan, ordea, 728,3 milioitik 309,0 Donostialdekoak dira, baina kopuru garrantzitsuak geratzen dira lurraldeko beste eskualde batzuetarako, Deba Garairako 114,6 milioi eta Goierriarako 106,7 milioi. Bizkaian Durangaldea (95,2 milioi) aipatzekoa da.

Berrikuntza jardueretako gastua 2011n hiru lurraldeetan eta hiru hiriburuetan hazi da, batez ere Donostian (%17,8) non orain bi urteko mailetan ari diren.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako: José Miguel Escalada

Tel.: +34-945-01 75 96 Faxa: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI. Prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI. Datu-bankua